

METODOLOGÍA

Datu-iturburuak

Txosten hau egiteko, iturri hauek erabili dira:

- Lan-istripuetarako (LI). IGATT aplikazioaren datu-basea, lan-istripuen parteak telematikoki jakinaraztekoa (Agindua, 2003ko azaroaren 20koa, Justicia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuarena). Datu-baseak azaroaren 19ko TAS 2926/2002 Aginduan ezarritako lan-istripu-agiri-modelo berrien datuak dauzka.
- Gaixotasun profesionaletarako, CEPROSS aplikazioak sortutako estatistika-fitxategia, gaixotasun profesionalen parteak telematikoki jakinaraztekoa, TAS 1/2007 Aginduan ezarritakoa. Fitxategia hilabetero igortzen da Gizarte-Segurantza-Antolamendurako Zuzendaritza Nagusitik Eusko Jaurlatitzaren Lan Zuzendaritzarako. Fitxategiak EAEko enpresetako langileen hileroko-erreferentzi gaixotasun parteak biltzen ditu, mutualitateek CEPROS sistemara jakinaraztekoak.

Aztertu beharreko datuak: epealdia eta hautapen-irizpideak

IGATT aplikazioan erregistratutako eta Lan-Zuzendaritzak baliozkotutako laneko istripuak sartu dira. Lan-istripuen parteko erregistro-eguna erabili da hautapen-irizpide gisa.

Gaixotasun profesionaletan, CEPROS sisteman dauden EAEko enpresetako langileei buruzko gaixotasun profesional kasu guztiak sartu dira. Lan-gaixotasunen parteko erregistro-eguna erabili da hautapen-irizpide gisa. Gaixotasun arrunt edo lan-istripu bezala Gizarte Segurantzak kalifikatutako kasuak kanpo utzi dira gaixotasun profesional bezala kalifikatutakoak besterik ez dira kontatu.

Abuztuaren 1eko 27/2011 Legearen xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera, Gizarte-Segurantzako erregimen

bereziko etxeko langileen lan-istripu eta lan-gaixotasun parteak onartu dira.

Aztertu beharreko biztanleria.

Intzidentzia-indizeak kalkulatzeko EAEko langile biztanleria erabili da, eta horietatik, Gizarte Segurantzako edozein erregimenetan azterketaren epealdian altan egon eta ezbehar profesionaletarako babestuta daudenak.

Ez dira aintzat hartu autonomoak edo kooperatibistak, kontingentzia profesionaletan Gizarte Segurantzak babestuta ez badaude.